

26. edizio berezia COVID-19

**EROSKI-K CIUDADANOS SARIA JASO DU
COVID-19AREN GARAIAN HORNIDURA ETA
SEGURTASUNA BERMATZEKO AZALDU DUEN
KONPROMISOAGATIK**

- **Aitortu egin dute hark egindako "lan eta ahalegin profesionala, herritarrenganako elkartasun portaera eta balio eredugarriak erakutsi baititu"**
- **2015ean EROSKI Fundazioari ere *Ciudadanos saria* eman zioten bere inplikazio eta konpromiso sozialarengatik**

Madril, 2020ko azaroaren 13a.- [EROSKI](#) saritu egin dute [Ciudadanos sari](#)en 26. ekitaldian, "2020ko gertaera, COVID-19, elkartasun entitate pribatua" kategorian, Madrilen ospaturiko zeremonian, zeinaren buru Administrazio Digitaleko idazkari nagusia egon baita, Juan Jesus Torres Carbonell.

Sariaren bitartez, hauxe aitortu diote: "*Nolako konpromisoa erakutsi duen koronabirusak jota gauden honetan, besteekin partekatuz bere dendetan hartu dituen ekinbideak —bai langileen eta bezeroen osasuna zaintzeko eta bai lehen mailako artikuluen hornitzaile gisa duen zeregina eta kalitatea bermatzeko—, osasun agintariekin egunero kontaktuan egonez laster jarduteko eta gertakizunei aurre hartzeko*", azaldu du Enrique Baronek, Europako Parlamentuko presidente ohi eta Ciudadanos sariketako epaimahaikideak.

EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak hartu du saria, Alejandro Martinez Berriochoak, eta hauxe gogorarazi du: "*Erlojuaren kontrako lasterketa egin genuen erabakirik onenak hartzeko alarma egoera deklaratu zutenean. Inoiz ere horrelakorik ikusi gabeko egoera batean erantzunak bilatzeko erabakiak izan ziren, geure buruari nahitaezkotzat jota gure dendetan hornidura bermatu behar genuela gure langileen eta bezeroen segurtasuna ahalik eta gehien bermatzen saiatzeko. Prebentziozko neurriak hartzeko orduan, protokolo zorrotzak ezarri genituen, arriskuak gutxitzeko xedez, hala nola jende kopurua mugatu, segurtasun distantziak ezarri, babes elementuak banatu, pantaila babesleak ipini, erosteko ohituren gaineko aholkuak eman... Tentsioa izugarria izan zen elikagaien kate osoan, baina katebegi guztien lankidetzarekin lehen mailako ondasunen hornikuntza bermatu ahal izan genuen*".

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

Hala berean, gogorarazi du EROSKI nolako eginahala egiten ari den bere jarduera bideratzeko, *"kolektiboaren mesedetan, gizartearen aldeko elkartasunari bide emanda eta bereziki behartsuenen alde"*. Hala, elkartasun ekintza asko gauzatzen ari da osasun krisia eragiten ari den ondorioak gizarteko sektorerik zaugarrienetako batean gutxitzeko helburuz. Esaterako: elikagaiak eta higiene produktuak biltzea bazterketa soziala jasateko arriskuan diren kolektiboentzat besteren artean FESBAL eta Gurutze Gorriaren bitartez; elikagaien, maskaren, arroparen eta abarren doaintzak egitea; eta familia ugariei laguntzak ematea.

Irabazi asmorik ez duen Ciudadanos Sarien Elkarteak eman dio saria, balioan jarriz: *"Entitate eta kolektibo profesionalek muturreko egoeran egindako lan eta ahalegin profesionala, herritarrenganako elkartasun portaera eta balio eredugarriak erakutsi baitituzte"*, azaldu du Enrique Baronek.

Bigarrenez eman diote EROSKIri Ciudadanos saria

2015ean, EROSKI Fundazioa saritu egin zuten XVI. Ciudadanos sarietan, *"Osasuna eta Bizi Kalitatea"* kategorian. Sari horren bitartez, zera aitortu zioten, kontsumerismoarekin, elikadurarekin, bizi ohitura osasungarriekin, elkartasunarekin eta laguntza-sustapenarekin zerikusia duen ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren aldeko konpromisoa.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa